



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 1a

104. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, sexu-esplotazioa desagerrarazteko eta prostituzio-sistema abolitzeko politikei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak aurkeztu du (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Castejongo Trenasa enpresa ixtearen aurka dagoela adierazi baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hizkuntzen Europako Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen baitu Castejonen Trenasa filiala ixteko iragarpena. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten baititu entitate, enpresa nahiz alderdi politikoen aurkako ekintza bandalikoak, mehatxuak eta irainak. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio Felipe VI.a Espainiako Erregeari. Eledunen Batzarrak onetsia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Espainiako Gobernuak alarma-egoeran hartutako neurriak luzatzea, etxebizitzarako eskubidea babesteko. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten baitie Nafarroako ostalaritza sektoreko langile, enpresari eta kudeatzaileei. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, obra publikoetan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

- Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriari aurrea hartzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, egoitza-zentroetako farmazia-arreta berreskuratzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Espainiako Zirkuitu Txapelketa bertan behera geratzeari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, adingabe bati “haxixa” edukitzeagatik jarritako salaketa baten kariatara Foruzaingoak argitaratutako txioari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeei ituna kentzeari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Ikaslekar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohie ematen zaien eskolta eta garraio zerbitzuen kostuari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (13. or.).
- Galdera, soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozle eta intsumiso guztiei Nafarroako Parlamentuak bere errekonozimendua adierazteko mozioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez betetzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 49. puntuan proposatzen den Europako Ekintza Plana berrikusteari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 52. puntuan proposatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania Berriko lehendakarietako bilera deitzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 53. puntuan proposatzen den baliabideak monitorizatzeko eta lortzeko tresna politiko eta tekniko bultzadari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (17. or.).
- Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

I SAILA:**Planak, komunikazioak eta programak:**

- Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2020ko eztabaida antolatze arauak (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko**

urriaren 30eko eguerdiko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2020ko abuztuaren 21eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00014).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, sexu-esplotazioa desagerrarazteko eta prostituzio-sistema abolitzeko politikai buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkezturiko interpelazioa, sexu-esplotazioa desagerrarazteko eta prostituzio-sistema abolitzeko politikai buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-
tzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-
tarioari atxikitako Nuria Medina Santosek, Lege-
biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babe-
sean, honako interpelazio hau egiten du, Osoko
Bilkuran eztabaidatzeko:

Honako interpelazio hau aurkezten diogu
Nafarroako Gobernuari, bere eskumenen espa-
rruan sexu-esplotazioa desagerrarazteko eta
prostituzio-sistema abolitzeko darabiltzan edo
aurreikusten dituen politikai buruzkoa.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Cas- tejongo Trenasa enpresa ixtearen aurka dagoela adierazi baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak,
2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako
adierazpen hau onetsi zuen:

Nafarroako Parlamentuak Castejongo Trenasa
enpresa ixtearen aurka dagoela adierazi du,
enpresak ekoizteko gaitasuna duelako eta itxierak
eskualdeko garapen ekonomiko eta sozialean
eragin handia duelako.

Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa
dela Nafarroako Gobernuak esku hartzea enple-
gu-erregulazioko espediente eta Castejongo Tre-
nasa enpresaren itxiera saihesteko, eta, beraz,
110 lanpostu galtzea eragozteko.

Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adieraz-
ten die ukitutako langileei eta haien familiei, eta
konpromisoa hartzen du, bere eskumenen espa-
rruan, enpresaren itxiera eta langileen kaleratzea
saiheste aldera ekiteko.

Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta
premiazkotzat jotzen du Lan Erreforma indargabe-
tzea, negozio-gaitasuna duten enpresen ekoiz-
pen-jarduera ixtea/etetea ahalbidetzen baitu". (10-
20/DEC-00082).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hizkuntzen Europako Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hizkuntzen Europako Egunarekin, zeina heldu den irailaren 26an ospatuko baita eta, besteak beste, Europaren hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna zaintzea eta indartzea bilatzen baitu.

Nafarroako Parlamentuak, Europar Batasunaren jarraibideekin bat, hizkuntza-aniztasuna eta eleaniztasuna sustatzearen aldeko apustua egiten du, eta babestu egiten du haren ikuskera, alegia, hizkuntzak ikastea aberaste pertsonal gisa eta XXI. mendeko Europako herritartasunaren oinarri gisa hartzen du.

Nafarroako Parlamentuak azpimarratu egin nahi du euskarak Europaren hizkuntza-aniztasunari egiten dion ekarpen berezia, eta euskara babestu eta sustatzearen aldeko apustua egiten du, gizarte osoarentzako elementu onuragarria eta aberasgarria izan dadin, Nafarroako herritar guztien ondarea den aldetik.

Adierazpen hau Nafarroako Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuraren hasieran irakurriko da, alegia, Hizkuntzen Europako Egunarekin batera”. (10-20/DEC-00083).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak sakonki deitoratzen baitu Castejonen Trenasa filiala ixteko iragarpena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Sakonki deitoratzea Castejonen Trenasa filiala ixteko iragarpena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Parlamentuaren elkartasuna eta babesa adieraztea

plantillako langileei eta haien familiei, bai eta, zeharka, itxiera-iragarpenak uki diezaiekeen guztiei ere.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea ekin dezan itxiera hori saihesten saiatzeko eta, hori lortu ezean, lana galduko duten pertsonak berehala birkokatzea ziurtatzeko”. (10-20/DEC-00084).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten baititu entitate, enpresa nahiz alderdi politikoaren aurkako ekintza bandalikoak, mehatxuak eta irainak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Errefusatu eta gaitzestea Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren egoitzak eta Caixabanken Iruñeko egoitza nagusiak jasandako erasoak eta Burlatako alkateari buruz eta Nafarroako

Suma eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren zinegotziei buruz egindako pintadak eta haiei zuzendutako irainak.

2. Elkartasuna eta babesaren adieraztea horiei guztiei, horrelako ekitaldiak direla eta”. (10-20/DEC-00085).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio Felipe VI.a Espainiako Erregeari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak babesa ematen dio Espainiako errege Felipe VI.ari, herritarrek berretsitako Espainiako Konstituzioan ezarritako zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoa eratzeko forma politikoa definitzen duen erakundearen ordezkari gisa”. (10-20/DEC-00086).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Espainiako Gobernuak alarma-egoeran hartutako neurriak luzatzea, etxebizitzarako eskubidea babesteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Espainiako Gobernuak alarma-egoeran hartutako neurriak luzatzea, etxebizitzarako eskubidea babesteko”. (10-20/DEC-00088).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen insituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa erakusten baitie Nafarroako ostalaritza sektoreko langile, enpresari eta kudeatzaileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babesa eman die Nafarroako ostalaritza sektoreko langile, enpresari eta kudeatzaileei, jasaten ari diren egoera laritzen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Nafarroan 18.000 lanpostu hartzen dituen eta herritarren bizitza- eta harreman-ohituren funtsezko parte den sektore ekonomiko honek berebiziko garrantzia duela.

3. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du ostalaritza-establezimenduak egiten ari diren ahalgina, segurtasuna bermatzeko eta gizarte osoari

helarazteko osasun-agintariek proposatutako eta Nafarroako ostalaritzak onartutako neurri horiek errespetatzea funtsezkoa dela kutsadura-kurba apaltzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak administrazio jardule guztiei dei egin die, sektorea jasaten ari den egoera larriaren aurrean neurri sorta bat aztertzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak lantalde tekniko bat sortzea sektorearekin, egoerari eta hartu beharreko neurriei heltzeko”. (10-20/DEC-00089).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, obra publikoetan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, obra publikoetan inbertituz ekonomia suspertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuarentzat lehentasuna al da ekonomia suspertzea obra publikoetan inbertituz? Eta hala bada, zer jarduera espezifiko egin ditu?

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriari aurrea hartzeari buruzkoa.*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriari aurrea hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer neurri hartu du eta zer neurri hartuko du nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriari aurrea hartzeari begira?

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko, Irisgarritasun unibertsalari buruzko 12/2018 Foru Legak eta Ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeretarako 51/2003 Legeak jasotzen duten moduan?

Iruñean, 2020ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, egoitza-zentroetako farmazia-arreta berreskuratzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, egoitza-zentroetako farmazia-arreta berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2016ko abenduaren 16ko Nafarroako Aldizkari Ofizialak (241. zkia.) argitaratu zuen farmazia zerbitzua eta/edo farmazia zerbitzu bati lotutako medikamentuen biltegia duten egoitza (zentro soziosanitario) pribatuentzako diru-laguntza deialdia, 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetako arreta farmazeutikoaren funtzionamendu gastuak finantzatzeko. Diruz lagundu daitekeen aldia laster bukatuko da.

Nafarroa Suspertu 2020-2023 Plana dela-eta Parlamentu honetan egindako batzorde berezian,

erabaki bat onetsi zen, zeinaren bidez Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu baitzuen “egoitza-zentro horietako farmazia-arreta berreskura dezan eta arreta hori bertako farmazia-zerbitzu propioek eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak eman dezaten, guztiz atomizatutako eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin loturarik ez duen eredua zuzenduz”.

Egoitza-zentro horietako farmazia-arretaren egungo modeloari jarraikiz, urtean milioi bat euro baino gehiago ematen zaizkie Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren politiketatik guztiz at dauden enpresa pribatuetako farmazia-zerbitzuei; horrek Nafarroako Ospitalegunearreko koordinazio arazoak eta asistentziaren jarraitutasunaren arlokoak eragiten ditu, farmazia-historialak profesional pribatuen esku daudelako, errezeta elektronikotik kanpo eta O-NOZeko informazio-sistematikiko konexiorik gabe.

Galdera:

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zer egingen du egoitza-zentro horietako farmazia-arreta berreskuratzeko eta arreta hori bertako farmazia-zerbitzu propioek eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalak emateko, guztiz atomizatutako eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin loturarik ez duen eredua zuzentzeko?

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, Espainiako Zirkuitu Txapelketa bertan behera geratzeari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Zirkuitu Txapelketa bertan behera geratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaion:

– Nafarroako Gobernuak zergatik eskatu du bertan behera gera dadin Espainiako Zirkuitu Txapelketa, zeina irailaren 26an eta 27an egin behar baitzen Iruñean, beste ekitaldi publiko batzuk mantentzen diren bitartean?

Iruñean, 2020ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, adingabe bati “haxixa” edukitzeagatik jarritako salaketa baten kariatara Foruzaingoak argitaratutako txioari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, adingabe bati “haxixa” edukitzeagatik jarritako salaketa baten kariatara Foruzaingoak argitaratutako txioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Irailaren 13an mezu “jostagarrí” bat argitaratu zen, adingabe bati “haxixa” edukitzeagatik jarritako salaketa baten kariatara, Foruzaingoaren Twitter sare sozialeko profilean. Txioak oihartzun zabala izan zuen eta polemika handia eragin zuen sare sozial horretan.

“Control en #Peralta (NA115) con + en drogas del conductor. El acompañante, menor, denunciado por tenencia de hachís ¿Lo contará mañana en el insti? #PMPeralta”

Kontuan izanda salaketa jaso zuena adingabea dela eta adingabeen artean droga-mendekotasuna prebenitzeko ondorio negatiboak dauzkala, uste dugu txio hori guztiz desegokia izan zela.

Ironia, komunikazio-tresna den aldetik, positibo gerta daiteke, baina kasu honetan tokiz kanpo dago, zeren eta adingabeek drogak kontsumitzea osasun publikoko lehen mailako arazo bat baita, tratamendu oso serioa eta zorrotza eskatzen duena.

Galdera:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak zer balorazio egiten du txio horri buruz?

Iruñean, 2020ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeei ituna kentzeari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeei ituna kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntzari buruzko lege organiko berriak ituna kenduko die ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen ikastetxeei. Zer iritzi diozu horri?

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Ikaslar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuei buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Ikaslar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Foru Komunitateko zenbat zentro publiko edo itundutan ari dira erabiltzen Ikaslar argitaletxearen Txanela Proiektuko testuliburuak Lehen Hezkuntzako seigarren mailan?

Iruñean, 2020ko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen zaien eskolta eta garraio zerbitzuen kostuari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen zaien eskolta eta garraio zerbitzuen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

• Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei egun ematen zaien eskolta zerbitzuaren kostua zein da?

• Nafarroako Gobernuak ibilgailu-parkeak Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen dien garraio zerbitzuaren kostua zein da?

Iruñean, 2020ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozle eta intsumiso guztiei Nafarroako Parlamentuak bere errekonozimendua adierazteko mozioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozle eta intsumiso guztiei Nafarroako Parlamentuak bere errekonozimendua adierazteko mozioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló Hualde andreak idatziz erantzun dezan:

2018ko urrian, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, soldadutzarekiko intsumisioaren eta kontzientzia eragozpenaren mugimendua aitortzeari, erreparazioa emateari, konpilazioa egiteari eta zabalpena emateari buruzkoa. Zehazki, honako bost puntu hauek onetsi ziren:

“1. Bere errekonozimendua adierazten die nahitaezko soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozleei eta intsumisoei, espetxe eta inhabilita-

zio zigorrak pairatu baitzituzten beraien konpromisoagatik eta borroka baketsuagatik, desobedientzia zibila erabiliz gizarte baketsu eta desmilitarizatua lortze aldera.

2. Premiatu egiten ditu eragozleen eta intsumisioen jazarpena aldeztu eta burutu zuten erakunde publiko militar, politiko eta judizialak, beraien historiaren eta jarduketan berrikuspen kritikoa egin dezaten.

3. Nafarroako Gobernuak premiatzen du Memoriaren Institutuaren bitartez azter, balora eta ezaugaraz dezan intsumisioaren aldeko mugimenduak bere osotasunean egindako ekarpena Nafarroan bakearen kultura eraikitzekoa, bai eta beharrezkoak diren jarduketa guztiak burutu ditzan ere, gure Komunitatean espetxe-zein desgaitze-epai penalak jasan zituzten pertsonak eta haien familia- eta gizarte-inguruneak errekonozitze aldera.

4. Nafarroako Gobernuak premiatzen du ezagutzera eman ditzan, egoki diren bideak erabilita, intsumisioaren jokabidea eta Nafarroako gazteriak antimilitarismoaren eta nahitaezko soldadutzaren desagerpenaren alde gauzatutako jarduna.

5. Nafarroako erakunde osotasunari dei egiten dio jarduketak diseinatu eta abiaraztera, eragozle eta intsumisioen aitorpena eta erreparazioa lortze aldera”.

Hori dela-eta, parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut departamentuak zer egin duen onetsitako bost puntu horietako bakoitzari dagokionez, bai eta jarduketak bukatzeko egutegi-aurreikuspenari edo, kasua bada, horiek hasteari dagokionez ere.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez betetzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.3 artikulua ez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko

8/2009 Foru Legearen 12. artikuluan zehazten dira korporazio horretako arduradunek zer legebetebehar dauzkaten Parlamentuaren kontrola bermatzeko. Zehazki, 3. apartatuak honako hau ezartzen du:

“3. Administrazio Kontseiluko lehendakariak, zuzendari nagusiarekin, gutxienez ere urtean behin egingen du agerraldia Nafarroako Parlamentuko Ekonomia Batzordean, urteko aurreikuspenei buruz eta kasuko ekitaldian eginiko kudeaketari buruz informatzeko. Korporazioa osatzen duten sozietateei buruz ere informatuko du. Lehendakariak Korporazioko zuzendari nagusia izendatzen edo ordeztzen denean ere egingen du agerraldia”.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak, berriz, prentsa-ohar bat argitaratu zuen 2020ko irailaren 18an, zeinean iragartzen baitzen korporazioko Administrazio Kontseiluak “gaur, ostirala, egindako bilkuran, Francisco Fernandez Nistal zuzendari nagusi izendatu” zuela.

Hori dela-eta, parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak zergatik ez duen bete 12.3 artikuluan ezarritakoa, eta ea egoera hori zuzentzeko asmorik duen.

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 49. puntuan proposatzen den Europako Ekintza Plana berrikusteari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 49. puntuan proposatzen den Europako Ekintza Plana berrikusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planeko 49. puntuan eskatzen zen Europako Ekintza Plana berrikusteari ekin zekion edo berrikuspenerekin jarrai zedin, jomugatzat hartuz pandemiak eragindako krisitik heldu den agertoki ekonomiko berria.

Zer neurri zehatz hartu dira hori egiteko?

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 52. puntuan proposatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania Berriko lehendakarietara bilera deitzeari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 52. puntuan proposatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania Berriko lehendakarietara bilera deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planeko 52. puntuak Nafarroako Gobernuari premiazten du bilera baterako deia egin diezaien Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania Berriko Eskualdeko lehendakariari, hainbat arlotan proposamenak lantzeko eta lankidetzaz-esparru horren aukera guztiak aprobetxatzeko". Deitu al da bilera hori? Noizko aurreikusten da?

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 53. puntuan proposatzen den baliabideak monitorizatzeko eta lortzeko tresna politiko eta teknikoen bultzadari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren 53. puntuan proposatzen den baliabideak monitorizatzeko eta lortzeko tresna politiko eta teknikoen bultzadari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Reactivar Navarra/Nafarroa Suspertu Planeko 53. puntuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio “baliabideak monitorizatzeko eta lortzeko tresna politiko eta teknikoak bultzatzea, era guztietako proiektuetarako europar funtsen deialdien bidez; bereziki, COVID-19arekin lotutakoetarako”. Zer neurri zehatz aplikatu dira hori dela-eta?

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Irailaren 24ko Osoko Bilkuran, Eskubide Sozialetako kontseilariak adierazi zuen, ahozko galdera bati emandako erantzunean, departamentuaren asmoa dela COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzea. Horri buruz, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Departamentuak zenbat diru bideratuko du horretarako, jada bideratutakoaz gain (2,6 milioi eta 500.000 euro toki entitateen bidez)?

Aurrekontuko zer partidaren kargura ordainduko da kostu hori?

Zenbateko hori aurrekontuetan jada aurreikusita ez bazegoen, nondik aterako da dirua?

Zer irizpide erabiliko dira banaketa egiteko? Pandemiaren ezinbestean gutxitu beharreko tokien-gatik jaso ez diren diru-sarrerak sartuko al dira hor?

Noiz egingen da ordainketa?

Iruñean, 2020ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa zen,

eta 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00222).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko neurriei buruzkoa zen, eta

2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00229).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideen hautaketa.

HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak idazki bat aurkeztu du, zeinean eskatzen baitu luza dadin Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko bost kideak aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea 2020ko urriaren 8ko 17:30ak arte luzatzea (10-20/ELC-00002).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2020ko eztabaida antolatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida antolatzeko honako arau hauek onestea.

2. Erabaki hau jakinaraztea talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea (10-20/CDP-00005).

Iruñean, 2020ko irailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

“Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2020ko eztabaida antolatzeko arauak

Urriaren 29an eta 30ean

Urriak 29

Eztabaida Erregelamenduko 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingen da, eta Nafarroako Gobernuak lehendakariaren mintzaldiarekin hasiko da.

Azalpen hori amaiturik, bilkura ordu erdiz etenen da. Bilkura berriz hasten denean, mintzatuko dira mintzaldi-eskaera egiten duten talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak, 30 minutuz gehienez ere.

Mintzaldien hurrenkera parlamentari gehien dituen taldetik gutxien dituenak izanen da. Gobernuak babesten duten talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak azkenik mintzatuko dira, hurrenkera berean.

Mintzaldiak amaituta, Gobernuak lehendakariak erantzun egingen die. Ondoren, ihardespenez

txanda bat irekiko da, hamar minutuko gehienez, horretarako eskaera egiten duen talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkartearen eledun bakoitzarentzat, hasierako mintzaldien hurrenkera berean.

Azkenik, eztabaida lehendakariaren mintzaldiarekin bukatuko da.

Eztabaida bukatzen denean, hamabost minutuko epea irekiko da, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Mahaiari erabaki proposamenak aurkeztu ahal izateko. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost proposamen aurkeztu ahalko ditu. Halaber, sinatzaileek proposamen horiek bidali beharko dituzte egoki den unean adieraziko zaien posta elektronikoko kontu batera. Mahaiak eztabaidagaiarekin koherente diren proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen zein foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten.

Urriak 30

Mahaiak onarturiko proposamenak 09:15etik aitzina eztabaidatuko dira Osoko Bilkuran.

Erabaki proposamenak eztabaidatuko dira aurreko eguneko mintzaldien hurrenkera berean.

Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak bere proposamenak batera defendatuko ditu, hamar minutuz gehienez. Ondoren, taldeen interbentzioen txanda bat irekiko da, aldekoa zein kontrakoa, eztabaidaren hurrenkera berean, eta ihardespenez txanda bat ere. Bi txanda horiek bost minutukoak izanen dira.

Talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzaren proposamenak eztabaidatu ondoren, banan-banan bozkatuko dira erabaki proposamenak”.